

**2010EKO UZTAILAREN 9KO UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Bederatzia

HILABETEA: Uztaila

URTEA: Bi mila eta hamar.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Malu Valles Fernandez
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Segurola
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Arantza Gibelalde Iñurritegi
Joan Martin Aldaregia Etxebarria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2010eko maiatzaren 7ko aktaren onespena.

2010eko maiatzaren 7an, egindako ohiko batzaraldiaren aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da.

2.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA:

- Landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko behin-behineko onespena.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiarioen aldakerari behin-behineko onespena ematea.

2010eko martxoaren 26ko batzaraldian, landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiarioen aldaketaren Aurrerakinean ezarritako irizpide eta helburuak onartu ziren, Ingurugiro Inpaktuaren alde zuzenaren txostena emateari buruzko 2010eko urtarrilaren 29ko Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpenean ezartzen diren baldintzak jasoz. Aldi beran dokumentuari hasierako onespena eman zitzaion.

Hasierako onespena jaso zuen dokumentua jendaurrean jarri zen, 2010eko martxoaren 31ko eta apirilaren 7ko Berria, Diario Vasco eta GAOean iragarkiak argitaratuz. Hilabeteko epean hauek sinatutako alegazioak aurkeztu ziren:

- Roberto eta Ana Berbel Ayestaran.
- Jon Berbel Ayestaran, Antonio Berbel Pérez eta Begoña Ayestaran Dorronsoro.

Bide Azpiegituretako Departamentuari eta Ur Agentziari txostenak eskatu zitzaion. Lehenengoak aldeko txostena eman zuen apirilaren 27an, baina Ur Agentziak ez du txostenik eman. Dena dela bi hilabete baino gehiago igaro direnez eskaera egin zenetik, izapidetzearekin jarraitzea zilegi da.

2010eko ekainaren 30ean, txosten teknikoa eman zen aurkeztutako alegazioei buruz, ondorengo adieraziz:

1. ALEGAZIOA: Jon Berbel Ayestaran Antonio Berbel Pérez eta Begoña Ayestaran Dorronsoro.

Alegazioen edukien laburpena.

Bordaberri (alegazioaren 2. lurtzia) eta Bordaldea (alegazioaren 3. lurtzia) lurzatiei jabe gisa, bi lurzati hauen artean eskrituratan inungo bide publikorik ez dela aipatzen azaltzen dute. Ustezko bide historiko honek justifikatzen zuen aurrerapen fasean aurkeztutako iradokizunen ondorioz eginiko trazadura

aldaketa (Alegazioaren B bidea), Egia, Etxeburua eta Barrutia finketara sartzeko bide partikularra saiestuz.

Aurretik, hasierako trazadura aldatzeko eginiko iradokizuna onartzeko erabili zen argudio berdina erabiliz (Lurzatia erditik ebakitzen zuela), Loinaztik datorren bidexka eta Erauskinako errepideko lotura, aurrerapen fasean proposatutakora itzultzea eskatzen dute, irisgarritasun, erabilgarritasun eta kostuak kontutan hartuz.

Txosten teknikoa.

Proposatzen den trazadurak antzinako bide historiko bat berreskuratzea du helburu. Berau eskrituratan agertu ez arren, bere existentzia lekuan egiaztatu da, antzinako ortoargazkietan (1954), bai eta inguruko bizilagunekin izandako elkarrizketetan. Gainera, neurri handi batean, bide hau lurzatien arteko mugatik igarotzen da –katastroaren arabera-, lurzatiak erditik ebakitzea ekarriko luken kaltea gutxituz.

Bide historiko bat berreskuratzea, proposatutako trazadurari “balio erantsi” gehitzea dela pentsatzen dugu. Era berean, lurzatien erdibitzea, zati txiki batera murrizten dela esan beharra dago (irisgarritasun, erabilgarritasun eta kostuengatik).

Guzti hori dela eta, dokumentuak proposatutako trazadura egokia dela erizten diogu.

2. ALEGAZIOA: Ana Berbel Ayestaran eta Roberto Berbel Ayestaran.

Alegazioaren laburpena.

Bordaldea lurzatiaren (alegazioaren 1. lurzatia) jabe gisa, beronen hegomendebaldeko mugatik planteatzen den trazadurari dagokionean (alegazioaren A ibilbidea), berau bere jabetzako lurretatik igarotzen dela esaten da.

Aurretik, hasierako trazadura aldatzeko eginiko iradokizuna onartzeko erabili zen argudio berdina erabiliz (Lurzatia erditik ebakitzen zuela), Loinaztik datorren bidexka eta Erauskinako errepideko lotura, aurrerapen fasean proposatutakora itzultzea eskatzen dute, irisgarritasun, erabilgarritasun eta kostuak kontutan hartuz.

Txosten teknikoa.

Aurrerapen fasean proposatzen zen trazadura ez bezela, orain proposatzen den trazadura lurzatien arteko mugatik planteatzen da, zeinak neurri handi batean, beraiek erdibitzea suposatuko luken afekzioa neurri handi batean murrizten duela erizten diogu.

Dokumentuak, trazaduraren alde banatara 10 metroko lur eremu bat planteatzen du, bertatik pasako delarik behin betiko trazadura. Lur eremu honen baitan, exekuzio proiektua izango da behin betiko ibilbidearen kokapen egokiena zein den erabakiko duena.

Guzti hori dela eta, dokumentuak proposatutako trazadura egokia dela erizten diogu.

2010eko uztailaren 2ko datarekin, Aholku Batzordeak txostena eman du eta adostasuna azaldu du proposatzen den aldaketarekin.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten

Lehenik. Aholku Batzordeak emandako gomendioa aintzakotzat hartzea.

Bigarren. Aurkeztutako alegazioak ebaztea, deuseztatuz.

Hirugarren. Landa eremua sartzeko oinezkoen bide sarearekiko Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespena ematea.

Laugarren. Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari espedientea igortzea, txostena emateko eskatuz eta aldi berean ingurugiro inpaktuari buruzko behin betiko txostena eskatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

- Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 3. dokumentuaren (39, 44-48, 50-51 eta 55 artikulak) aldaketari behin-behineko onespena.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 3. dokumentuaren (39, 44-48, 50-51 eta 55 artikulak) aldaketa

AURREKARIAK

2010eko maiatzaren 7ko batzarraldian, hasierako onespena eman zitzaien Arau Subsidiarioen arauzko dokumentuen hainbat artikuluen aldaketari:

- Txapitula eta teilatupeak: 39, 44, 45, 46, 47 eta 48.
- Soto eta erdisotetako erabilpen-baldintzak. Garajeak etxebizitzekin lotura ez izatea: 50 eta 51 artikulak.

2.- Etxebizitzen gutxienezko tamainari buruz, araua eta fitxak aldatzea (55. artikulua)

- 1.B Alde Zaharreko Bizitegi Zona, 70 m² (t)/etxebizitza.
- 2.B Bizitegi Zonak etxadi blokeetan, 80 m² (t)/etxebizitza.
- 3.B Bizitegi Zonak, bloke linealetan, 80 m² (t)/etxebizitza.

Afektatutako area eta sektoreak:

- 1, 4, 12, 17, 24, 32 eta 34. Areak.
- 2. eta 3. Sektoreak.

Hasierako onespina jaso zuen dokumentua jendaurrean jarri zen 2010eko maiatzaren 13 eta 17an Berria, Diario Vasco eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkiak argitaratuz. Hilabeteko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

2010eko uztailaren 2ko datarekin, Aholku Batzordeak txostena eman du eta adostasuna azaldu du proposatzen den aldaketarekin.

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten

Lehenik. Aholku Batzordeak emandako gomendioa aintzakotzat hartzea.

Bigarren. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen 3. dokumentuaren (39, 44-48, 50-51 eta 55 artikulua) aldaketari behin-behineko onspina ematea.

Hirugarren. Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari espedientea igortzea, txostena emateko eskatuz.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

3.- ADIF-GUDUGARRETAKO JABEAK eta UDALAREN arteko HITZARMENA. Hasierako onspina.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: ADIF, Gudugarretako terrenoen jabeak eta Beasaingo Udalaren arteko hitzarmena.

2010eko ekainaren 25eko datarekin, ADIFek aiptutakoek sinatzeko hitzarmena bidaltzen du. Hitzarmen horren bidez, terrenoak deskabetzen dira, Beasaingo udalerrian Beasain-Mendebalde zatian, Euskal Herriko trenbide sare berriaren plataforma Eraikitze-Proiektua exekutatzeko. Desjabetzearen

ordainetan, Udalak desjabetutako zoruaren eraikigarritasuna mantentzeko konpromisoa hartzen du.

Horrek esan nahi du hirigintza izaerako hitzarmen baten aurrean gaudela.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aipatutako hitzarmenaren testuari hasierako onespina ematea eta jendaurran jartzea 20 laneguneko epearen barruan alegazioak aurkeztu daitezten. Alegaziorik ez bada aurkezten, hitzarmena behin betiko onartua geldituko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

4.- LOKALEN ERABILERA ALDATZEARI BURUZKO ORDENATZAREN ALDAKETA. Etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkatutako eremu jakin batzuetan dauden aretoen erabilera hirugarren sektorea izatetik etxebizitzetarakoa izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: etxebizitzetarako hiri-lurzoruan finkatutako eremu jakin batzuetan dauden aretoen erabilera hirugarren sektorea izatetik etxebizitzetarakoa izatera aldatzeko jarduerak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.

AURREKARIAK

Aipatutako ordenantzaren 8. artikulua adierazten du “ordenantzaren aplikazioa dela eta, aretoen erabilera aldatuz lortzen diren etxebizitzek udal etxebizitza tasatuaren kalifikazio iraunkorra izango dute erabateko jabetza edo jabariaren erregimenarekin. Udal etxebizitza tasatu hauen gehienezko salmenta-prezioa zein den jakiteko, aretoaren azalera erabilgarria biderkatu egingo da era honetara: Eusko Jaurlaritzak Beasainen babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarri duen gehienezko prezioaren modulua bider 1,5 koefizientea.

Dena dela, 2008ko maiatzaren 15eko Aginduak adierazten du etxebizitza tasatuen prezioa, babes ofizialeko etxebizitzaren salmenta-modulua bider 1,7 koefizientea dela.

Agindu honen babesean, VISESArekin sinatutako hitzarmena ere aldatu egin zen, HUNOLT,31 arean aurreikusita dauden etxebizitza tasatuekiko.

Hasiera batetan prezioa kalkulatzeko hitzartu bazen ere 1,5 koefizientea erabiliko zela, azkenik 1,7an finkatu zen.

Udalerriko eremu desberdinetan etxebizitza-erregimen berdina dutenentzat, diskriminazioa saihesteko, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Ordenantzaren 8. artikuluko aldaketari hasierako onespena ematea adieraziz jarraian, aretoen erabilera aldatuz lortzen diren etxebizitzaren prezioa, une bakoitzean legeriak babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioa finkatzen duena izango dela. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, ezin izango du gainditu araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioa bider 1,70 indizea.

Bigarren. Aldaketa hori jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean iragarkia GAOean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez eta legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

Andoni Antxia jaunak hitza eskatu du eta Alkateak eman ondoren esan du proposamenaren aurka daudela, horrelako neurriak beste kasuetan, adibidez Dolarean, ez direlako aplikatu.

Julio Herreros jaunak hitza eskatu du eta Alkate jaunak eman ondoren, hau esan du:

“Julio Herreros jaunak (EB): “Sra. Secretaria, le pido a Vd. que de fe pública de lo que está ocurriendo, que es la participación de la plataforma ilegalizada.

Los exbatasunos solo pueden ir a título personal, participar al final del Pleno, en el apartado de Ruegos y preguntas. Nunca pueden participar como Plataformas o Grupo Político.

Según el art. 88,3 del (ROF) Reglamento de Ordenación y Funcionamiento: el público asistente a las sesiones (Plenos) no podrá intervenir en estos, ni tampoco podrán permitirse manifestaciones de agrado o de desagrado, pudiendo el Presidente (Alcalde) proceder, en casos extremos, a la expulsión del asistente que por cualquier causa impida el normal desarrollo de la sesión. Sin perjuicio de ello, una vez levantada la sesión, la Corporación puede establecer un turno de consultas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal.

El art.228-2 del ROF (Reglamento de Ordenación y Funcionamiento):

Terminada la sesión del Pleno, el Alcalde puede establecer un turno de Ruegos y Preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este asunto.

Sr. Alcalde, se esta incumpliendo lo establecido en los artículos anteriores, no son cargos públicos, están ilegalizados, no pueden participar en los Plenos. Toda esta movida es ilegal.”

5.- DOLAREA HOTELA, S.L.ren alde EMAKIDA ADMINISTRATIBOA EGITEA.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: DOLAREA HOTELA, S.L.ren alde emakida administratiboa ematea.

AURREKARIAK

I.- 2008ko abenduaren 18an (GAO, 2009-01-08), behin betiko onespena eman zitzaion Dolarean lurpeko aparkalekua egiteko Egitasmo Bereziari. Egitasmo horretan aurreikusten da Dolarea ondoan dagoen terrenoan egin beharreko ekipamendua, Dolarea eraikinean garatu behar den jarduerari lotuta egongo dela eta horren ondorioz, hotela eta jatetxearen erabiltzaileei zuzendua egongo dela.

II.- 2009ko uztailaren 24an Gobernu Batzordeak erabaki zuen aparkalekua egiteko obrak, Construcciones Iturrioz, S.A.ri esleitzea. Maiatzaren 28an obrak amaituta egoteari buruzko ziurtagiria eman da etaobrak ontzat emateari buruzko akta jaso da.

III.- Aparkalekua eraiki den lursaila 2.625 m²koa, erabilera publikoa du eta jabari publikoa osatzen du. Pribatuki erabili ahal izateko, berarekiko emakida administratiboa ematea eskatzen du eta horretarako konkurrentzia egon behar bada ere, kasu honetan salbuetsi egiten da, planeamenduak ezartzen duelako garaje-plazen lotura hotel-jatetxearekin.

IV.- Eraikinean garatu behar den Jarduera-Proiektuan aurreikusten da lurpeko-aparkalekuak dauden lursailaren gainean tximinia jarri behar dela ostalaritza-jardueraren keak kanporatzeko. Horrek lursailaren erabilera pribatua dakar eta erabilera horren barruan ere egongo litzateke tximiniak funtzionatzeko behar dituen kanalizazioen pasoa.

OINARRI JURIDIKOAK

Legeri aplikagarria ondorengo artikulua hauetan aurreikusten da:

- Emakida administratiboari buruz, Entitate Lokaletako Ondasunen Araudiaren 74 eta hurrengo artikulua eta Administrazio Publikoen Ondasunei buruzko Legearen 2. 6. 84. 92. 93.1, 2, 3 y 4 atalak eta Bigarrenengo Azken-Xedapena.

- Udalbatza Osoak duen eskuduntzari buruz, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22,2n) artikulua.

Hori guztia kontutan izanda, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Dolarea eraikinaren aldameneko jabari publikoaren lursailaren gainean emakida administratiboa ematea, DOLAREA HOTELA, S.L.ren alde. Lursailaren azalera, 2.625 m²koa da eta mugak hauek dira: Iparraldetik, Hegoaldetik eta Ekialdetik, espaloiak eta gunee libreak eta Mendebaldetik, aipatutako eraikina dagoen lursaila.

Bigarren. Emakida administratiboak, jabari publikoaren lurzorua eta azalera aurreikusten du eta baldintza hauekin ematen da:

1.- Garaje-plazekin okupatutako lur-azpikoa erabiltzeko, emakidunak lurrazpiko aparkalekuaren Jarduera Proiektua aurkeztu beharko du eta funtzionamendurako udal-baimena eman ondoren, aseguratuta, egoera onean kontserbatu eta mantendu egin beharko du emakidaren denbora irauten duen bitartean.

2.- Lursailaren azalera pribatuki erabiltzeko eta garaje nahiz ostalaritza jardueraren gasak eta keak kanporatzeko tximiniarekin okupatzeko, emakidunak ostalaritza jarduera garatzeko baimen izan beharko du eta mantentzen duaz okupatu beharko du.

3.- Tximiniak okupatzen ez duen eremua, gunee berderako erabiliko da azalera horretaz emakida-administratiborik ematen ez denez mantentzea Udalaren kontura izango da.

Hirugarren. Dolarea eraikinaren gainean eta DOLAREA HOTELA, S.L.ren alde eratutako gozamen-eskubidearen babesean, emakida administratiboa ematen denez, **hogeita hamar urterako eratzen da, 2007ko apirilaren 27tik**, hau da, alokairu-kontratu administratiboa sinatu zenetik kontatzen hasita, baina kontratu horretan finkatutako berrogeita hamar urtetaraino luzatzeko kalterik gabe.

Laugarren. Urteko 11.540 €ko kanona ezartzen da. 2010. ekitaldiari dagokiona 2011ko urtarrilean ordainduko da emakida administratiboa ematen denetik kontatzen hasita. Hurrengo ekitalditik aurrerako kanona, abenduarekiko Autonomia Erkidegoko indize kontsumo prezioaren arabera eguneratuko da.

Bosgarren. Emakida-eskubidea duenak ezin izango du, eskubide hori eskualdatu, Udalak alde aurretik baimena eman gabe.

Seigarren. Aurrerago aipatuko diren emakida bertan behera gelditzeko baldintzaz gain, emakida administratiboa baliorik gabe gelditu daiteke Udalak bere kasa erabakitzen badu edozein momentutan interes publikoagatik. Kalte-

ordainik ez da egongo geroztik onartutako baldintza orokorrekin bat ez ba dator, jabari publikoan kalteak sortzen badira edo interes publiko handiagoa duten jarduerentzat erabiltzea eragozten bada edo erabilpen orokorra gutxiagotzen bada.

Zazpigarren. Ezarritako baldintzak ez badira ondo betetzen, udal agintariaren ohartarazpena ekarriko du eta berrerortzen bada eta interesek orokorren aurka ba doa, emakida bertan behera utzi daiteke, aldez aurretik aldeko espedientea izapidetuta.

Zortzigarren. Emakida administratiboa baliorik gabe ondoren aipatzen direnagatik geldituko da:

- a) Emakidunak eratzen duen entitatea desagitea.
- b) Emakida ematen duenak aldez aurretik baimena ez ematea eskualdatze-kasuetan.
- c) Iraungitzea, epea bete delako.
- d) Administrazioak bere kasa emakida bertan behera uztea.
- e) Bien arteko erabakia.
- f) Emakida duenak betebeharrak ez burutzea eta Administrazioak horrela aitortzea.

9.- Emakida bukatzen denean, obra eta instalazio guztiak, Administrazioarentzat geldituko dira.

Bederatzigarren. Erabaki hau 30eko laneguneko epean jendaurrean jartzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan ez badira aurkeztzen, erabakia behin betikoa izango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenaren alde dagoela esan du.

EBko ordezkariak abstenitu egin behar dutela adierazi dute.

Josi Insausti (Alkarbide): “Proponemos que el punto segundo, 3 de la parte dispositiva de la propuesta quede redactada de la siguiente manera: “el espacio no ocupado por la chimenea se destinará a zona verde, y aunque sobre él no se establece ninguna concesión administrativa, su mantenimiento correrá a cargo de Dolarea Hotela, S.L., bajo los criterios técnicos y supervisión del Ayuntamiento.”

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros al aprobar el Plan Especial para el aparcamiento subterráneo en la parcela adyacente a Dolarea, le dimos el voto positivo porque veíamos la necesidad de garaje. Cuando se dijo que las plazas de garaje las iba a pagar el Ayuntamiento, porque en aquel momento la situación económica de la empresa que había adquirido la explotación del hotel, pasaba por problemas financieros no previstos cuando se hizo la adjudicación, al haber cambiado la coyuntura económica, nuestro

partido votó en contra, porque no considerábamos que el Ayuntamiento tenía que financiar unas obras para un hotel que va a ser explotado por una empresa privada. Hoy parece que el Ayuntamiento vuelve al redil de lo que es la cordura de traer a Pleno la concesión de los garajes y el cobro del canon y que no sean los ciudadanos de Beasain los que tengan que asumir el gasto de lo que supone una explotación privada. Nosotros, como hemos dicho públicamente no estamos en contra del hotel. Hemos estado en contra del procedimiento y lo hemos criticado e incluso el procedimiento de dar autorización para que apareciera una chimenea en un suelo de dominio público sin que hubiera habido consentimiento expreso por este Pleno. No vamos a votar en contra porque pensamos que se están corrigiendo los errores que en su día cometió el Ayuntamiento, en cuanto al tema de licencias, pero tampoco lo vamos a apoyar. Nos vamos a abstener. Esperamos que funcione correctamente el hotel, ya que es de interés de la gran mayoría de los ciudadanos, por lo menos de los que están representados en este Pleno. No obstante, pensamos que no es la forma correcta de que el Ayuntamiento lleve las obras, ni incluso las que el mismo desarrolla.”

Alkatea jaunak: estamos dispuestos a aceptar la modificación de Alkarbide. En cuanto a lo manifestado por el partido socialista, decir que siempre dijimos que cuando se entregaran en concesión los garajes, se establecería un canon. Los procedimientos son discutibles, pero el principio de colaboración público-privado, es un principio que precisamente en este momento está muy candente, y está de moda, pero tu Fernando, en el Congreso de los Diputados verás que todo el tema de infraestructuras y equipamientos se está concitando lo público y lo privado.”

Se somete a votación la propuesta con inclusión de la modificación planteada por Alkarbide.

Idazkariak adierazi du emakida-administratiboa onartzeko gehiengo absolutua behar dela, hain zuzen ere, bederatzi boto proposamenaren alde.

Hori horrela izanik, EBko ordezkariak adierazi dute proposamenaren alde bozkatuko dutela.

Beraz, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin eta bide batez legeak ezartzen duen quorumarekin onartu da proposamena.

6.- SAN MARTIN PLAZAN, BEHEAN, OSTALARITZA JARDUERA USTIAKETAREN ESLEIPENA.

Ezagutzera eman da 2010eko uztailaren 9an, Kontratazio-Mahaiak egindako proposamena:

““AURREKARIAK

2010eko martxoaren 26an Udalbatza osoak erabaki zuen, aipatutako esleipena egiteko deialdia egitea, hautaketa prozedura arautzen duen baldintza plegua onartuz.

Deialdia, 2010eko martxoaren 31ko GAOean argitaratu zen eta proposamenak aurkezteko epean, sei argitaratu ziren. Horietatik bi lizitazioetik kanpo gelditu ziren zeren eta nahiz eta errekerimendua egin, ez zuten kreditatu eskatzen zen kaudimena, hau da, ostalaritzan bost urteetan gutxienez eskarmentua izatea.

Alkateak, hirigintza batzordea osatzen duten talde politikoen ordezkariak, arkitektoak, aparejadoreak, kontu-hartzaileak eta udal idazkariak osatzen duten kontratazio-mahaia, 2010eko maiatzaren 10ean bildu zen eta Alkarbideko ordezkariak izan ezik, beste guztiak azaldu ziren. Lizitazioan onartutako lizitatzailleek egindako proposamenen berri eman ziren eta nahiz eta CHAMADOIRAK sinatutakoa mahaiko partaide gehienei gustatzen zitzaiena izan, ez zen inolako esleipen formalik egin.

Hirigintza batzordearen Lehendakariaren inizatibaz, lizitatzaillei gonbidapena egin zitzaien kontratazio-mahaiaren aurrean garatzea proposatzen duten jardueren-memoriaren defentsa egitea. Defentsa hau 2010eko maiatzaren 31n egin zen. Aldez aurretik ontzat eman zen, teknikoek egindako proposamenari, esleipen-irizpideei (eskaintzaren memoria eta hobekuntzak) puntuazioa emateko egindako sailkapenari buruz.

Kontratuaren helburuak duen berezitasunak esleipen-irizpideen objektibotasuna eragozten du eta nahiz eta teknikoek beraien gain hartu, lokala egokitzeari buruzko obra-proiektuaren balorazioa, zalantza sortu zen politikoak ez diren eta kontratazio-mahaia osatzen dutenek hartu beharreko jarrerari buruz.

Xehetasun hau juridikoki aztertu ondoren hau esan daiteke. Kontratazio-mahaia eskaintzak baloratzeko organo teknikoa da eta ez politikoa eta bere izaerak ez du zer ikusirik batzorde informatibo batekin. Horren ondorioz ez dagokio kontratazio-mahaian boto ponderatua erabiltzea, izan ere jokaera horrek kontratazio-mahaia politizatu egingo luke eta politikoak ez diren kideen botoak testimonialak izango lirateke. Beraz, Araubide Juridiko-Legearen 24. artikulua aplikagarria izango litzateke, hau da, kontratazio-mahaia osatzen duten funtzionarioak proposamenaren alde edo aurka bozkatu beharko lukete eta ez litzateke zilegi izango abstenitzea.

Proposamenen azterketak ondoko gogoetara eramaten gaitu: baldintza pleguaren zioen azalpenak dioten moduan, administrazioko kontratu berezia eta aldi berean singularra da, bere helburua kontutan izanda, hau da, hiri-erdian dinamika duen gunea sortzea, ostalaritza jardueraren babesean. Dena dela, kontratazio-prozeduraren ohizko dinamikak eraman gaitu perspektiba hau galtzea eta eragin du, obra edo zerbitzuetaiko kontratu bat izango balitz bezala tratatzea.

Kontratu honen berezitasuna, beste gauza batzuen artean, honetan datza:

- 1.- Udalarentzako ez du inolako kosturik suposatzen.
- 2.- Udalak lortzen duen errendimendua ez da ekonomikoa, baizik eta espezietakoa eta interes orokorrari zuzendua dago. Izan ere, onura Beasaingo biztanleriarentzat Dakar.

Aurkeztutako eskaintza guztiak bidagarriak dira, baldintza pleguan eskatzen denari doituak, nahiz eta batzuek hobeto definituta egon. Bestaldetik, lizitatzailleek ostalaritza sektorean eskarmentua dute eta hori horrela izanda, bermatuta gelditzen da zerbitzuaren prestakuntza, ostalaritzari dagokionean.

Garbi dago, plazak eta inguruak dinamismoa behar duela eta horretara zuzendu dira udal esfortzuak, hala nola, Merkataritza Birgaitzeko Egitasmo Berezia eta hiri erdiaren oinaztatzea. Baina ekintza urbanistiko hauek giza eta kultura arloko beste elementu batzuekin lotuta egon behar dira. Horren ondorioz, ulertzen dena da kontratu honetan garrantzitsuena dela jardueraren memoria eta bide batez helburu horiek lortzeko garatu behar diren jarduerak. Hau kontutan izanda, aurkeztutako proposamenen artean desberdintasun nabariak daude eta hain zuzen ere hauek dira:

CHAMADOIRA

Proposatzen dituen askotariko jarduerak, bereziki umeei zuzenduta daude eta Udalak antolatzen dituen antzekoak dira. Gainera batzuk plaza azpian egongo den ludotekan Udalak antolatzen dituen antzekoak dira.

Ez du aipatzen zein maiztasunekin garatuko diren.

GUREGAS:

Jardueren eskaintza eskasa da. Bere eskaintzaren ekarpena, minusbaliotasuna duten pertsonak kontratatzearena da, baina baldintza hau ez da baldintza pleguak eskatzen.

Ez du egutegirik planteatzen.

Udalarekin elkarlana egitea ontzat ematen du, baina ez du inizatibarik hartzen.

BLUES-BROTHERS

Lizitatzailleak, eskaintzen dituen ekintzen maiztasuna azaltzen du eta beste lizitatzailleekiko gauza berriak proposatzen ditu, halaber: gertaera desberdinen informazio puntua, azokan saltzen diren produktuen sustapena, koadrila arteko herri-kirola, pantaila erraldoia, lehiaketa gastronomikoa. Ekintza hauek, betidanik plazara joaten ez den biztanleriaren sektore zabalagoari eta umeena baino zailagoa denari zuzenduta dago. Haurtzaroa ere kontutan izaten du eta berarentzat ere programazioa eskaintzen du.

Jarduerak zuzenduta dauden kolektibo ezberdin honek ematen dio aurkezten duen eskaintzari benetako balioa.

ROBERTO & MARTIN:

Lizitatzailleak egutegi bat azaltzen ez badu ere, aurkeztutako proposamenetik ondorioztatzen da jardueren maiztasuna. Jardueren artean betidanik gune hau erabili duten eta plaza birmoldatzeko garaian kontutan hartu diren baserritarren postuak sustatzeaz gain, urtarotetan azokak egitea proposatzen ditu, sasoiko eta sorterriko produktuekin.

Eskaintza honek udalerrria gainditzen du eta proposatzen duenaren duen arrakasta eta ezaguna den traiektoriak bermatzen du.

Emandako arrazoiak eragin dute Kontratazio-Mahaiak ulertzea, interes orokorrarentzat onena izango litzatekeela, bi azken proposamen hauen batura, izan ere berdinak ez izanik, osagarriak dira eta biztanleri bolumen handiagoari zuzenduta doaz. Hortaz eta kontuan izanda, Roberto Ruizek proiektua defendatzerakoan esandakoa, Blues-Brotherseko ordezkariarekin batera joatekoa, hain zuzen ere, hauei ezagutzera eman zitzaizen Udalaren duen interesa beraien proposamen bateratua izateko, beti ere beraiek ados egon ezkerro. Erantzuna baiezkua izan zen eta 2010eko uztailaren 5ean, Felix Huici, Roberto Ruiz y Martin Urquiola jaunek proposamen bat aurkezten dute San Martin plazapean dagoen lokalean ostalaritza jarduera garatzeko, xehetasun hauekin:

- LOKALA EGOKITZEA.

Obra zibilaren proiektua, bere garaian Roberto Ruiz eta Martín Urkiola jaunak aurkeztutakoa izango da. Aurrekontua, martxan jartzeak duen kostua barne, 94.000 €koa.

- KOMUNAK

365 egunetan irekita egongo dira:

1. Aste egunetan (astelehenetik ostegunera), 7,00etatik 22,00ra.
2. Ostiraletan eta aste bukaeretan, 7,00etatik 24,00ra.
3. Jaiegunetan, 8,00etatik 02,00ra.

Garbiketa: eguerdian eta ixterakoan.

Higienarako produktuen euskarriak jartzea.

- JARDUERAK

Kontratazio-Mahaiak eskatu zuen moduan, Jarduera-Memoriak beraiek banaka aurkeztutako ekintzak batzen ditu.

Horren ondorioz, Kontratazio-Mahaiak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Ostalaritza jarduera ustiatzea, aldeztu aurretik jarduera hori garatzeko lokala egokitzeari buruzko behin behineko esleipena, Félix Huici, Roberto Ruiz eta Martin Urquiola jaunen alde egitea, baldintza pleguan eta beraiek aurkeztutako eskaintzaren arabera.

Bigarren. Litzitazioan parte hartu dutenei erabaki honen berri ematea, esleipendunei adieraziz, 15 lanegunean erabaki hau jakinarazitako hurrengo egunetik kontatzen hasita, ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan eguneratuta egotearen ziurtagiria.
- 4.700 €ko behin betiko fidantza.

Hirugarren. Esleipendunei baimena ematea, nahi izan ezker, pertsonalitate juridikoa aldatzeko bidezkoa iruditzen zaiena osatuz, jardueraren garapena hasi aurretik eta Udalarari horren berri emanez.

Laugarren. Lokala egokitzeko obren gaineko, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea, obra hori udal onurakoa dela aitortzen delako, giza xehetasunak daudelako.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritziz hauek azaldu dira:

PP, PSE-EE/PSOE eta ALKARBIDE, proposamenaren alde azaldu dira. EB, aldiz aurka.

Julene Hidalgo (EB) andreak: “desde EB estamos en contra de esta propuesta por los diferentes movimientos que ha habido en la Mesa de Contratación y dada la manera en la que se ha presentado nos ha hecho dudar. No nos parece que esta propuesta debiera de salir adelante, sino que planteamos que se haga una nueva reunión de la Mesa de Contratación.”

Andoni Antxia jaunak: “forma eta fondoko xehetasunak. Forma aldetik esan, guk dokumentaziorik ez dugula eta zalantzak sortzen direla gai hau aurrera eramateko. Fondoari begira berriz, ez dakigu euskararen erabilera ziurtatzen ala ez.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ, PSE-EE/PSOE, ALKARBIDE, PP)
Aurkako botoak: 2 (EB)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

7.- MUSIKA ESKOLA, UDAL EUSKALTEGIA ETA BERTSO ESKOLA.
TASAK. 2010-2011 ikasturterako tasei hasierako onespina ematea.

Alkateak, Hazienda Batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA: Beasaingo Loinatz Musika Eskolan, Udal Euskaltegian eta Bertso eskolan 2010-2011 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespina.

Hazienda Batzordeak 2.010eko ekainaren 28an egindako bileran, 2010-2011 ikasturtean Musika Eskolako, Euskaltegia eta Bertso eskolako irakaskuntza zerbitzuengatik aplikagarri izango diren tarifen onespina proposatzen dio Udalbatzari:

**BEASAINGO LOINATZ MUSIKA ESKOLA
2010-2011 IKASTURTEA**

	<u>Urteko kuota/ Cuota anual</u>
MUSIKA TAILERRA TALLER MUSIKAL	175,00 €
HASTAPENA INICIACION	225,00 €
INSTRUM. + M. LENGOAIA II. MAILA INSTRUM. + LENGUAJE MUSICAL NIVEL II	600,00 €
INSTRUM. + GAI TEORIKOA III. MAILA INSTRUM. + MATERIA TEORICA NIVEL III	640,00 €
M. L. + PANDERO EDO + KANT TALD L.M. + PANDERO O + CANTO GRUPAL	445,00 €
M. LENGOAIA LENGUAJE MUSICAL SIN INSTRUMENTO	225,00 €
GAI TEORIKOAK MATERIAS TEORICAS	225,00 €
INFORMATIKA	225,00 €
INSTRUMENTUA II. MAILA	450,00 €
INSTRUMENTUA III. MAILA	470,00 €
TRIKITIXA (II. eta III. MAILAK / NIVELES II y	385,00 €

III) PANDEROA	275,00 €
KANTUA TALDEAN CANTO GRUPAL	200,00 €
PIANOA + AKONPAINAMENDUA PIANO + ACOMPAÑAMIENTO	700,00 €
PIANOA + AKONPAINAMENDUA + GAI TEORIKOA PIANO + ACOMPAÑAMIENTO + MATERIA TEORICA	840,00 €
BAKARLARI CANTO SOLISTA	470,00 €
IZENEMATEA 11-12 INSCRIPCION 11-12	37,00 €
MATERIALA	10,00 €

- Familia partaide kopuruarengatiko dirulaguntza:

1. partaideak: kuota osoak

2. partaideak: kuota osoak

